

[Donosti] Denuncian insoportables ruidos y vibraciones nocturnas provocadas por las obras del metro

SATORRALAIA :: 25/03/2019

VECINOS DE AMARA DENUNCIAN LOS INSOPORTABLES RUIDOS Y VIBRACIONES NOCTURNOS PROVOCADOS POR LAS OBRAS DE LA PASANTE DE METRO:

Convocan una rueda de prensa el próximo jueves ante el Ayuntamiento

1.EUSKARA

2.CASTELLANO

METROAREN OBRAK GAUETAN ERAGINDAKO ZARATA ETA BIBRAZIO JASANGAITZAK SALATU DITUZTE AMARAKO BIZILAGUNEK:

Prentsaurrekoa deitu dute datorren ostegunean Udaletxearen aurrean:

Amara Zaharreko bizilagunek Metroaren eraikuntza-lanak joan den otsailaren 24az geroztik gaueko orduetan beren etxeetan etengabe eragiten ari diren zarata eta bibrazio jasangaitzak salatu dituzte. **Kalteturiko 179 auzotarrek izenpeturiko salaketa** aurkeztu dute gaur Donostiako Udaletxean, Eusko Jaurlaritzan, Euskal Trenbide Sarean eta Arartekoan (**salaketaren idatzia atxikita bidaltzen dizuegu**).

Metroaren obrak Osasuna, Amara Gaina eta Autonomia kaleetako hainbat etxebizitzetan azken asteetan eragindako zarata izugarrien ondorioz ezinezkoa bihurtu da bizilagunentzat etxean lo egitea eta gauetan deskantsatzea. Egoera hori kalte larriak eragiten ari da bizilagunen osasunean: ugariak dira lo-aldiaren alterazio, neke, zefalea, antsietate eta estres kasuak. Lanean baja eskatu behar izan dute zenbait auzotarrek antsietate arazoengatik eta zatika lo egin ahal izateko medikazioa hartu behar dute beste hainbat bizilagunek. Batzuk etxetik atera behar izan dute lo egin ahal izateko, senide eta lagunen etxeetara joatea bultzatu dituztelarik.

Udaltzainek **30-60 dezibelioko zarata mailak** neurtu dituzte etheen barnean, lo-gela eta egon-geletan. Kutsadura akustikoa arautzen duen Udal Ordenantzak gaueko orduetan (22:00tik 8:00ak arte) etxebizitzetan ezartzen duen gehienezko 27 dezibelioko muga erabat gainditzen dute beraz.

Bizilagunek salatzen dutenez, gainera, **martxoaren 13an Udaltzaingoaren UCOM** -Unidad de Control de las Ordenanzas Municipales— **delako unitateko zuzendariak jakinarazi zien egun hartatik aurrera sonometrorik gabe egongo zirela hurrengo bi asteetan gutxienez** -antza denez neurketak egiteko zeukaten aparatu bat galdu eta eskura zeukaten beste bakarra hondatu zaielako. Gauzak horrela, **Donostiako Udaltzaingoak egun ez dauka zaraten eta bibrazioen Udal Ordenantza betetzeko behar diren ikuskapenak egiteko sonometrorik ere**. Nabarmendu behar da, bizilagunak jasaten ari

diren egoeraren jakitun izanda ere, Udaletxeak ez duela inolako arretarik edo ardurarik agertzen eta ez duela bere ordenantzak bete daitezen zainketarik ere batere egiten.

Hori gutxi balitz, **Euskal Trenbide Sareak (ETS) bizilagunei erantzun die Udaltzaingoa egindako neurketak “baliogabeak” direla**, eta bitartean ETSko inor ez da azken hilabete luzean etxeetan agertu ere egin bizilagunek behin eta berriz eskatu dizkioten neurketak egiteko. Eraikuntza-lanen enpresa adjudikatzaleak behar lituzke neurketa horiek egin, ordea, Metroaren obra proiektuaren Ingurumen Zainketa Planak zehazten duenez.

Horrenbestez, **makinek inolako kontrolik eta zigorrik gabe darraite gauetan lan egiten, bai udal arautegia eta bai Metroaren proiektuko Ingurumen Zainketa Plana ere urratuaz** -azken honen arabera “zaratek eta bibrazioek legezko mailak gaindituz gero horiek gutxietzeko neurriak hartu behar dira” eta “gauetako deskantsua errespetatuko da”.

Epaitegian ere salaketa bat egin da egoera honengatik.

Prentsaurrekoa datorren ostegunean Udaletxearen aurrean:

Bizilagun kaltetuek prentsaurrekoa emango dute datorren ostegunean, hilak 28, goizeko 11etan Donostiako Udaletxearen atarian (Ijentea kalea), egoera guzti honen berri zuzenean emateko.

Halaber, bizilagun kaltetuen batzarra egingo dela iragarri dute Apirilak 2 asteartean arratsaldeko 8etan Amara Bai elkartearen egoitzan (Amara kalea 17).

Vecinos de Amara denuncian los insoportables ruidos y vibraciones nocturnos provocados por las obras de la pasante de metro:

VECINOS DE AMARA DENUNCIAN LOS INSOPORTABLES RUIDOS Y VIBRACIONES NOCTURNOS PROVOCADOS POR LAS OBRAS DE LA PASANTE DE METRO:

Convocan una rueda de prensa el próximo jueves ante el Ayuntamiento

Vecinos y vecinas del barrio de Amara Viejo han presentado hoy en el Ayuntamiento, en el Gobierno Vasco, en Euskal Trenbide Sarea y en el Ararteko una denuncia suscrita por **179 vecinos afectados** ante la insoportable situación provocada **desde el 24 de febrero** por los ruidos y vibraciones nocturnos que están soportando en sus casas por las obras de la pasante del Metro **(adjuntamos el escrito de la denuncia presentada)**.

Los tremendos ruidos de la Obra impiden conciliar el sueño y descansar por las noches a muchos vecinos de las calles de la Salud, Amara Alto y Autonomía. Esta situación está provocando graves estragos en la salud de los vecinos, dándose numerosos casos de alteración del sueño, fatiga, cefaléas, ansiedad y estrés. Entre estas personas, hay vecinos que han tenido que coger la baja por ansiedad y gente que se ve obligada a medicarse para poder dormir algo. Varias personas se han visto obligadas a dejar su casa para poder

dormir, teniendo que buscar acogida en otros domicilios de familiares y amigos.

Las mediciones de ruido realizadas por la Policía Municipal han dado valores de entre **35-60 decibelios** dentro de las casas, en habitaciones y salas de estar --muy superiores a los 27 decibelios establecidos como máximo nivel de ruido permitido en horario nocturno (de 22:00-8:00) en la Ordenanza Municipal que regula la contaminación acústica.

Los vecinos denuncian además que **el 13 de marzo el director de la UCOM** (Unidad de Control de Ordenanzas Municipales de la Policía Municipal) **les comunicó que a partir de ese día no iba a haber sonómetros disponibles en un plazo de unas dos semanas** -porque al parecer uno de los aparatos se perdió y se les ha averiado el único aparato de mediciones que tenían--, con lo que **actualmente la Policía Municipal NO tiene ni un aparato con el que realizar inspecciones del cumplimiento de la Ordenanza Municipal de ruidos y vibraciones**. Debe ponerse de manifiesto que a pesar de que en el Ayuntamiento son conocedores de los problemas que están sufriendo los vecinos, no se están interesando por nada y no están vigilando que se cumplan sus ordenanzas.

Entretanto, **Euskal Trenbide Sarea (ETS) responde que las mediciones realizadas por la Policía Municipal “no son válidas”, pero no se ha presentado durante casi un mes en las viviendas** de los vecinos afectados para hacer las mediciones que ETS considera como válidas y que han sido **solicitadas con muchísima insistencia por los vecinos afectados**. La empresa adjudicataria de la obra debe hacer dichas mediciones según dicta el Plan de Vigilancia Ambiental de proyecto de obra del Metro de Donostia.

Mientras tanto **las máquinas continúan impúnemente trabajando por las noches incumpliendo la normativa municipal y el propio Plan de Vigilancia Ambiental del proyecto**, donde se señala que “se adoptarán las medidas necesarias para minimizar los efectos de los ruidos y vibraciones cuando estos superen lo admisible” y donde se afirma que “se respetará el descanso nocturno”.

También ha sido interpuesta una **denuncia de esta situación en el Juzgado**.

Rueda de prensa el próximo jueves ante el Ayuntamiento:

Los vecinos/as afectados realizarán una rueda de prensa el próximo jueves día 28 a las 11h ante el Ayuntamiento (C/ Ijentea) para informar directamente de esta situación.

Anuncian también una reunión de vecinos/as afectados que tendrá lugar el martes 2 de abril a las 20h en los locales de AmaraBai (c/ Amara 17).

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/donosti-denuncian-insoportables-ruidos-y